

5.KANALAK

Tokiko garraio publikoaren geltokietan eta paseatzeko parkeetan edukiontzi bereziak jarriko ditugu zigarro-muturrak biltzeko, eta inguruko denda ekologikoetan gure papera saltzeko aukera eskainiko dugu.

Gainera, online denda lehen momentutik zabalduko dugu, kostu aldetik inbertsio handirik ez duelako suposatzen eta hasieratik bezero gehiagorengana iristeko aukera ematen duelako.

Sare sozialak erabiliko ditugu bezero berriak erakartzeko eta tokiko komunitatean kontzientzia-kanpainak egiteko. Horrela, gure balio-proposamena modu eraginkorrean helaraziko diegu bezero guztiei.

